

BERTSO MARRAZKIA



1.-Paisaia bat da eta jar zazu arreta pixkanaka marraztu behar duzu eta (bis).

2.-Orrian behekaldea belardi bat denez, koloreztatu zazu zuk berde ilunez.

3.-Hartu marroia eta ezkerreko aldean egin zazu etxe bat belardi gainean.

4.-Etxeak ezkerrean du bere atea marraztu behar duzu karratu, tentea.

5.-Ta hiru leiho ditu: bi goian, bat behean horiz margotu behar dira barrenean.

6.-Teilatu eskuinean tximinia dauka ke grisa botatzen du zirriborratuta.

7.-Belardian gainean ta eskuinetara etxearen neurriko zuhaitza ere bada.

8.-Enborra marroia du, berdeak orriak ta hostoen artean gerezi gorriak.

9.-Belardian gainean tente, zortzi lore petaloak naranja ta zurtoinak berde.

10.-Zuhaitz gainean, beltzez, hegaka lau kaio ta bakoitzari "eme" forma hartzen zaio.

11.-Ezkerreko ertzean, horiz eguzkia bederatzi marrekin bota du izpia.

Tralara -lala, tralara-lala, tralara-lara-lara, ZER MODUZ ATERA DA ZURE MARRAZKIA?

